



JUAN LUIS LARREA
RFEF-KO
PRESIDENTEA



GIPUZKOAKO FUTBOL
FEDERAZIOAREN
MENDEURRENA



RICARDO DE BURGOS
BENGOETXEA
DAGOENeko
NAZIOARTEKO
EPAILEA DA

FIFA EPAILEA



CON SURNE TIENES UN SUPERSEGURO DE VIDA

Surne, la compañía con la mejor atención y servicio, reconocidos por la mayoría de corredores del país*, te ofrece el más completo seguro de vida con múltiples servicios y a un precio imbatible.



PRECIO Y COBERTURAS

Todas las coberturas con un precio imbatible.



PLATAFORMA MOOVE

App para medición de datos biométricos.



TESTAMENTO ONLINE

Un servicio adicional que nos diferencia.

cmb

bizkaiko medikuen elkargoa
colegio de médicos de bizkaia

SEGURMEC
ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.
CORREDURÍA DE SEGUROS S.L.

 **surne**
seguros & pensiones

944 354 600
segurmec@cmb.eus



MUTUA MEJOR
VALORADA VIDA
RIESGO / ACCIDENTE
ADECOSE 2015



3	EDITORIALA
4-5	FEDERAZIOAREN GAURKOTASUNA
6-9	LEHEN MAILA
10-11	EPAILEAK
12	EUSKADI ZALEA
13	EMAKUMEEN SELEKZIOA
14	BIGARREN B MAILA
15	HIRUGARREN MAILA
16-17	EMAKUMEEN FUTBOLA
18-19	JUBENILAK ETA KADETEAK
20-21	ARETO FUTBOLA
22	BERRIAK

©:

EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea
Comité de Redacción
Luis María Elustondo,
Nerea Zalabarría, Kepa Allica,
Haritz Gallastegi y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación
Disenu eta Maketazioa
Diseño y Maquetación
Cantera Deportiva S.L.
Argazkiak. Fotografías
Federación Vasca de Fútbol

HAMAIIKA
Euskadiko Futbol Federakundea
Julian Gaiarre 48 bajo
48004 BILBAO
Tfnoa: 94 473 19 00
webmaster@eff-fvf.eus
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen
iritziak erantzule egiten
Hamaika no se hace responsable
de la opinión de sus colaboradores/as

EDITORIALA

FUTBOLA, HUNKITUTA

Urte bete daramagu futbolaren kirolarekin zerikusirik ez duten estutasun, kezka eta tentsio egoerak jasaten. Bistakoak dira jatorrizko helburu nagusiari ez dagozkion interes lokal edo pertsonaleko maniobrak. Ángel María Villar presidentearen kontrako bat-bateko ekintzak okertu baino ez ditu egin jadanik hondoan lohia zekarten urak, zenbait egoismo zi-koitz azaleratzeko eta agerian jartzeko balio izan duen arren.

Euskadiko Futbol Federazioak, kortse menderatzaile honi dagokionez izandako bere eragin eskasa ikusita, ezintasun nabarmenarekin ikusten ditu ideia edo hobekuntza egokien ekarpenetarako bere aukerak. Hala ere, gure jarrera beti aktiboa, positiboa eta itxaropentsua izango da.

Esan beharra dugu kargu eta ardura ugari betetzen jarduten diren gizonezko eta emakumezkoen gehiengo zabala, etikaren eta eraginkortasunaren erakusleho nagusia izateaz haratago, gestio profesional, garden eta jaria kor baten bidez futbola berreskuratzeko itxaropen handia islatzera datozela. Beraz, konfiatzen dugu guztion artean lortzea gure bihotzak erreklamatzeko diguna munduko kirol kutunenaren alde: futbola.

Legezkoa denez, gure esker onak guztiontzat, klubak, zuzendariak, erakundeak, arbitroak, entrenatzaileak, jokalaria, medikuak, fisioak, kolaboratzaileak, etab, zuen jarduera bikainagatik.

Eskerrik asko.

Luis María Elustondo.
Euskadiko Futbol Federakundearen Presidentea.



Juan Luis Larrea R.F.E.F.-ko presidentea, eskuinean

JUAN LUIS LARREA, RFEF-KO PRESIDENTEA ANGEL MARIA VILLAR EZGAITU ONDOREN

Larreak kargua onartu zuen joan den 2017ko uztailearen 26an, R.F.E.F.-ko zuzendari bezala ia hiru hamarkada eman ondoren, bertako diruzaina izanik.

A. M.

Juan Luis Larrea Espainiako Futbol Erreal Federazioiko diruzain ohia berretsia izan zen joan den uztailearen 26an erakundeko presidentea bezala, Ordezkaritza Batzordea ospatu eta Angel Maria Villar bere arduradun gorena "Soule opera-

zioan' erruduntzat hartzeagatik kartzelaratu ondoren.

Juan Luis Larrea Sarobe 1953ko otsailaren 18an jaio zen Donostian eta 1981-82 denboraldian Gipuzkoako Futbol Federazioiko zuzendaria izan zen, Joseba Arzak presidentearen mendean. 1987an, Arzak erretiratu ondoren, presidente izendatua izan zen. Larrea R.F.E.F.-ko zuzendaritza batzordeko kidea da 1988tik, eta ordutik bertako diruzainaren funtzioa betetzen du. Gainera, 1993tik futboleko selekzio nagusiko ordezkarria da, Munduko Txapelketetan eta Eurokopatan laguntzailea izanik.

Halaber Euskadiko Futbol Fe-




**PEDRO CALPARSORO
GIPIZKOAKO
FEDERAZIOKO
EGUNGO
PRESIDENTEA DA**

Estatutuetako 36 artikuluko 5. atalean babestuta, Gipuzkoako Futbol Federazioiko zuzendaritza batzordeak erabaki zuen joan den abuztuan Pedro Calparsoro, ordura arteko presidenteordea, lurralde federazio hartako presidentea izatea, Juan Luis Larrea R.F.E.F.-ko presidentea izan bitartean.

**LURRALDE
FEDERAZIOAK
AURTEN BERE
MENDEURRENARI
EKINGO DIO**

Gipuzkoako Futbol Federazioak bere mendeurrena ospatuko du 2018 honetan, ekitaldiz bertako programa zabal baten eskutik, federazio ezkutu berri bat eta efemeride horren oroitzapenezko kartel bat eratzeko lehiaketa batekin abiatuz.

derazioiko fundatzailetako bat da, fundatu zenetik bere Zuzendaritza Batzordeko kidea izanik.



ASTORE

LARREA: "ONGI IRUDITZEN ZAIT EUSKAL SELEKZIOAK FIFA DATAK OKUPATZEA"

Juan Luis Larrea R.F.E.F.-ko presidentea 'Hamaika' aldizkarirako futbol espainiarraren gaurkotasuna berrikustera dator, Euskadiko Federazioko bere ibilbideaz ahaztu gabe.

A. M.

Eguno presidente bezala, nola ikusten duzu E.F.E.F -ren garapena epe labur eta ertainean?

Orain egoera normalizatu nahian

nabil. Esango nuke lortzen ari garela. Jadanik sei hilabete eman ditut R.F.E.F -ren aurrean, eta futbolaz hitz egiteko asmotan gabilta, bestelako gaiekin nahastu gabe. Epe ertainean, hauteskunde deialdia egin behar dugu. Oraindik ez dakigu izango den Presidentziarako, ziur aski Aste Santua baino lehen ospatuko litzateke, martxoa inguruan, edo Batzorderako, kasu horretan Mundialaren ondorengo data legokioke.



Onartuko al zenuke 2020 arteko kontsentsu bat, presidentea zaren bitartean, eta jarraian hautes-

kundeak ospatzea, dagokion presidente berria jardunean aritu ahal izateko futbol bateratuari dagokion programa garden batekin?

Onartuko al zenuke 2020 arteko kontsentsu bat, presidentea zaren bitartean, eta jarraian hauteskundeak ospatzea, dagokion presidente berria jardunean aritu ahal izateko futbol bateratuari dagokion programa garden batekin?

Nola ikusten duzu euskal selekzioak edo kataluniarrek FIFA datetan jokatu nahi izatea, gainera izaera nahiko ofizialarekin?

Ondo iruditzen zait FIFA data eskuragarriak okupatzea, eta zergatik ez babestu bere ofizialtasuna. Mundua globala da eta eboluzionatzen ari da. Nik ez dakit, baina nire bilobek ezagutuko dute. Bien bitartean oso garrantzitsua da taldeak zaleekin babestea eta bizirik mantentzeko formulak bilatzea. Argitasuna eta laguntza politikoa behar dira.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA

FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL



Julian Gaiarre 48 bajo - 48004 Bilbao
Tif.: 94 473 19 00 | Fax: 94 473 22 21

WEB | www.eff-fvf.eu

TWITTER | [@EFF_FVF](https://twitter.com/EFF_FVF)



@EFF_FVF





EFF-FVF-ren

informazio

guztia

click

batekin



Hamaiika
EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

Descárgate esta revista en pdf

DEPORTIVO ALAVES TALDEAK ARGIA IKUSI DU ABELARDO AULKIRA ETORRI DENEAN

Aulkian bi aldaketa gertatu ostean, Luis Zubeldía eta Gianni de Biassi, klub babazorroak asmatu egin du Abelardo 'Pitu' izendatua hautatzean.

A. Marcos



FILIALA, FEDERAZIO KOPAKO TXAPELDUN AUTONOMIKOA

Alaves B taldeak Federazio Kopako txapelkun autonomikoaren bere ohorezko titulua berretsi zuen, jadanik 2015ean lortutakoa, lehenengo txandan kanporatzean Bigarren B Mailako Amorebieta eta finalean 3. Mailako Getxo. Hala ere, filial babazorroak torneo honetako bere abentura amaitu zuen Peña Sport taldearekin finaleko 1/16etan neurtzean kanporatua izan zenean.

Deportivo Alaves taldeak berriro iraunkortasunaren aldeko borroka ekiten lortu du Luis Zubeldía eta Gianni de Biassi aulkia uztera

behartu dituen hasiera etsigarri baten ondoren.

Abelardo aulkira etortzeak aire freskoaren ufada bat ekarri du eskuaira gasteiztarrentzat, age-

rikoa izanik taulako bere egoerak erakusten zuena baino zume hobeak dituela, futbol erakargarria hedatzea eta emaitza oso onak sinatzea lortuz.



Eskoriatza Kalea, 5 | 01013 Vitoria - Gasteiz | T. 945 27 90 11

**AUTOCARES | COCHES DE LUJO | TAXIS | LIMUSINAS
GRUPOS | EMPRESAS | ESCOLARES | EVENTOS**

ATHLETIC KLUB TALDEA HEGALDATU DA HASIERA KONPLEXU BATEN ONDOREN

*Zuri-gorriak, Ligako sei
jardunaldi segidan galdu
gabe uztartu ondoren,
kanporatu egin zuen
Formenterak (Bigarren B)
Errege Kopan.*

A. Marcos

Athletic Kluba ibilbidea finkatuz doa bere txapelketa gogokoenean, Errege Kopan, bere jarraipena kendu dioten bi hilabete oso kon-

plexuren ostean, ustekabeen kanporatua izateagatik Formentera bezalako Bigarren B mailako aurkari baten aurrean. Aldiz, zuri-gorriek lehen postua lortu zuten Europa League txapelketako taldeen fasean, bere azken hiru konpromisotan bederatzi puntuko emaitza betearekin erremontatzea lortu ondoren. Cuco Zigandaren jokalariek otsailean Moskura bidaiatuko dute Spartak taldearekin neurtzeko, halaber gizarte masa zuri-gorriaren artean ikusmin handia eragiten duen torneo bateko final zortzirenetara hurbilduko dituen kanporaketa bat



**KLUBEKO MUSEOAREN
INAUGURAZIOA SAN
MAMESEN**

Museo zuri-gorri berria joan den irailaren hasieran inauguratu zen ikusleriaren arrakasta itzelarekin, ondorioz bisiten ordutegia zabaldu behar izanik.

bideratzeko asmoarekin. Paraleloki, bilbotarrak ezin dira despistatu Ligagan, eta sailkapen taulan euren igoera bereziarekin aurrera egiten saiatuko dira.

AEXA
OBRAS Y SERVICIOS. S.L.

**Lavado, planchado
y repasado
de ropa deportiva
Desde 1970**

SD EIBAR TALDEAK HASIERAKO NERBIOAK ALDENDU ONDOREN BERE BERTSIO ONENA ESKAINI DU

Baliozko 21etikiko 2 puntuko bolada txar baten ondoren, Jose Luis Mendilibarren jokalariek hegaldatzea lortu zuten, berriro talde erabat fidagarri modura finkatuz.

A. Marcos



Eibarrek ia bi hilabeteko estatusuna gaintitzea lortu du sailkapenaren beheko eremura modu arrisku-suan hurbiltzera eraman zuen

garaipena ezagutu gabe. Jose Luis Mendilibarren jokalariek erremon-tada ikusgarriaren protagonistak izan ziren, horrela joan den denboraldian transmititu zituen

**FILIALA 2 B
ESTRENALDIAN MAILA
MANTENTZEAGATIK
BORROKATZEN DU**

Erakunde armaginarene bigarren taldea maila mantentzeko borrokan mur-gilduta aurkitzen da, denbo-raldi zail batean aurreko urtean Hirugarren Mailatik igo ostean. Hala ere, Igor Gordobilen taldeak arpegia ematen ari da gaztetasunez osatutako jokalariekin eta txapelketako bigarren zatian errendimendua handitzea espero du.

sentipen onak berreskuratzea lortuz eta sailkapenaren goiko eremuan finkatuz, jaitzieratik urrunduz eta postu europarren aldeko norgehiagokara hurbilduz.



AYESTARAN



**JOYERÍA AYESTARAN
CON EL DEPORTE
EUSKALDUN**

DONOSTIÁN

31 DE AGOSTO, 16
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17
Tf.: 943 420 919

ERREALA LIGAKO ERREGULARTASUNAREN ETA ILUSIO EUROPARRAREN BILA DABIL

*Errege kopan Lleidarekin
kontra galdu eta gero,
Donostiar klubak ligan
goiko postuei eustea eta
Europar aurrera joatea
espero du.*

A. Marcos



Erreala Ligan erregular-
tasuna mantentzeko bo-
rrokatzen ari da berriro
txapelketa europarretan sartzeko
postuen alde lehiatzen jarraitzeko.

Kopatik kanporatuak izanik Lleida
(Bigarren B) taldearen aurrean,
donostiarrak orain otsailaren zain
daude Uefa Europa League Txa-
pelketako finalaren 1/16etan lehia-

JOKIN APERRIBAY, BERRIRO PRESIDENTE HAUTATUA

Jokin Aperribay era-
kunde donostiarreko
presidentea izaten manten-
duko da 2022ra arte, berriro
hautatua izan ostean gehien-
go absolutuarekin (% 98)
joan den abenduaren 13an
Kursaalean ospatutako Ak-
ziodunen Batzorde Nagu-
sian. Horrela, Aperribayek
bere gestio apartarekin ja-
rraitu ahal izango du, Errea-
leko agintari gorena izanik
hamalau urte betetzea lor-
tuz.

tzeko; kanporaketa honetan Red
Bull Salzburg taldearekin lehiatu-
ko dira, handicapa izanik itzuliko
partidua Anoetatik urrun jokatu
behar izatea.

Ibéricosdeluxe

Delicatessen

ESPECIALISTAS
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS
(BODAS, COMUNIONES...)



Tienda situada en
San Sebastián (Donostia)
Calle NARRIKA nº 31 Parte Vieja
Telf.: 943 423 849

www.ibericosdeluxe.com

RICARDO DE BURGOS BENGOETXEA: “KOPAKO FINAL BAT EPAITZEAREKIN AMETS EGITEN DUT”

Ricardo de Burgos Bengoetxea (Bilbo, 1986) jadanik nazioarteko epailea da. Mundu mailan hazi nai du eta Kopako final bat epaitzearekin amets egiten du.

Haritz Gallastegi

31 urterekin nazioarteko partidak epaitzeko aukeratu zaituzte. Gauzak azkar eta ondo egiten ari zara

2001ean hasi nintzen epaile lanetan eta urte gutxitan aurrerapausu handiak eman ditut. Oso pozik nago. Hurrengo urteetan nagoen mailan mantendu eta ahal izanez gero naziorte mailan hazten ahaleginduko naiz.

Hazi egin gura duzula aipatu duzu. Noraino ailegatzea espero duzu?

Lehenik eta behin arlo taktikoan zein teknikoan hobetzea espero dut. Hala bada, UEFAko zein FIFAko ordezkariak konfiantza gehiago izango dute nigan eta



horrek maila hobeko norgehiagoketan aritzeko aukera emango dit. Ni behetik hasiko naiz. Europan hiru mailatan banatzen dituzte epaileak. Europa Ligako zein Txapeldunen Ligako partidak zuzentzeko gorengo mailara igo beharko dut. Hori dut xede.

Txapeldunen Ligako finalak edo Munduko Txapelketako finalak betetzen zaitu gehiago?

Munduko txapelketa bateko finala zuzentzea baino neurketa garrantzitsuagorik ez dago. Baina

Txapeldunen Ligako final bat zuzentzea ere ederra izango litzateke. Epe laburrean Errege Kopako final bat zuzentzea gustatuko litzaidake. Gure ligan hitzordu garrantzitsua da oso.

Zergatik egin ziñen epaile?

Gure aita Lehen Mailako epailea izan zen. Baina hori baino garrantzitsuagoa da futbola oso gustuko dudala. Jokalari gisa ondo moldatzen nintzen, baina une txarrak pasa nituen eta aldatzea erabaki nuen.

The Coca-Cola logo is displayed in its classic white script font against a solid red background.

11 #EUSKADIKO EPAILEEN BATZORDEA

Zer da epaile izatearen gauzarik onena eta txarrena?

Onena hasieratik barneratzen dizkizuten baloreak dira: konpromisoa, justizia eta sakrifizioa zer diren erakusten dizute. Arlo txarra, berriz, jakinekua da: zenbait zelaitan jasotzen ditugun tratatu txarrak, txistukadak, errespetu falta etengabeak... epaile guztiok bizi izan ditugu egoera horiek. Baina ni gauza onekin geratzen naiz.

Epaileak merezi duzuen errespetuz tratatuko zaituzteten eguna ezagutuko al dugu?

Futbola osatzen dugun guztion esku dago aldaketa. Hala ere, he-dabideen ekarpena garrantzitsua izango da arlo honetan. Indar handia daukate. Baina ez da erraza izango.

Euskadiko epaileen maila ona al da?

Gure epaileen maila oso ona da.



Egun ni baino ez nago gorengo mailan, baina oso ondo baloratuak gaude.

TEKNOLOGIA FUTBOLEAN

Futbolean teknologia sartzearen aldekoa al zara?

Baloia ate barrura sartu den ala ez erakusten duen neurgailua jartzearen aldekoa naiz. VAR-aren funtzionamendua ez dut ezagutzen, beraz, nahiago dut iritzirik ez eman. Ez daukat behar adina informazio. Errusiako Munduko txapelketan ikusiko dugu balekoa den ala ez.

Bukatzeko, ze gomendio emango zenioke epaile izatearekin amets egiten duen gazte bati?

Gogoz hartzeko eta gozatu dezala.



Eventos con garantía de éxito

HGB
HOTEL GRAN BILBAO



El Hotel Gran Bilbao es el único hotel que dispone de palacio de congresos además de 1,800 metros cuadrados de salones para eventos.

Es un espacio idóneo para organizar eventos de empresa, convenciones, formaciones y presentaciones de producto.

El hotel ofrece apoyo integral a la gestión del evento y gran variedad de menús para banquetes y coffee breaks.

- 🚶 El hotel está situado a escasos pasos del casco viejo,
- 🚗 tiene muy fácil acceso para llegar en coche
- 🅅 y ofrece parking gratuito para los asistentes.



EUSKADI, TXANDAZ ALDATZEKO GOL BATERA ZUBIETAN OSPATUTAKO UEFA-KO ESKUALDE KOPAN

Jonathan Ledesmak entrenatzen duen konbinatuak 4-0 goleatu zion Baleares taldeari baina minimoagatik erori zen Aragón (0-1) taldearen aurka, lehia erabakigarrian, penalti bat huts egin ondoren.

Aitor Villarren tantoek berriz ekitean, euskal taldearen gailentasuna bistaratu zuten.

Bi egun geroago, Aragon taldeak 2-0 emaitzarekin Balearesen aurka irabazi ondoren, Euskadirentzat berdinketa nahikoa zen

aragoiarren kontra txapelketako lau selekzio onenen artean ezartzeko. Hala ere, atera eginiko bere lehenengo eta ia jaurtiketa bakarrarekin, bisitariek 0-1 emaitza lortu zuten, horrela finalera helduz, pena maximoa markatu zuten talde lokalen ekiteaz eta aukerez haratago joanez.

Hamaika urte eta erdi iragan dira Euskadi 2005ean Jose Antonio Goikoetxearen eskutik Europako Txapelketa aldarrikatu zenetik. Euskal selekzio amateurrek gainera estatuko bi garaipenekin (2004 eta 2006) kontatzen du, eta 2002an lortutako azpi-txapelketa batekin ere bai. Arrakasta horiek ezin izan dira berriro lortu bere azkeneko sei partaidetzatan.

David Novo

Euskal selekzioko zaleak ezin izan zuen gairiditu joan den abenduan Zubietako instalaziotan lehiatutako UEFA-ko Eskualde Koparen fase estatala.

Jonathan Ledesmarek taldea anfritioia izan zen Baleares eta Aragon konbinatu autonomikoen aurrean, amaiera txandara zuzenean pasatzeko ahaleginean. Hiru kolorekoa ederki hasi zen torneoan, uhartekoak gardentasunez gairiditzea lortuz. Borja Álvarezek bi golekin lehenengo atalean eta Ekaitz Molina eta

FEDERAZIOAK BERE SARE SOZIALAK BULTZATZEN DITU

Euskadiko Futbol Federazioa aktiboagoa bihurtu da azken hilabeteetan bere sare sozialetan, berriak, deialdiak edo jakinarazpenak esekitzen ari-tuz, halaber aurkitu ahal direnak www.eff-fvf.eu bere web ofizialean. Facebook-en Luis Mari Elustondo presidentearen mendeko euskal erakundea Euskadiko Futbol Federakundea - Federación Vasca de Fútbol tekletuz aurki daiteke, twitterreko bere profila @EFF_FVF izanik.





EUSKAL SELEKZIOA CHEQUIAREN AURKA NAGUSI (2-1) IPURUAN

Euskadi Chequiaren aurka nagusitu zen (2-1) Ipuruan, 2017ko azaroaren 25ean. Iñigo Juaristi gure teknikaria izan zen, Iraia Iturregi eta Aintzane Encinas laguntzaileak izanik.

Txemi García

Euskal Selekzioa nazioarteko panoramara itzuli zen joan den 2017ko azaroaren 25ean Chequiaren aurka lehiatzeko Ipuruan. Euskadiko Federazioak Iñigo Juaristirekin konfiatu zuen hiru kolorekoa zuzentzeko. Hautatzaileek bi jokalari ohi hautatu zituen laguntzaileak izateko. Iraia Iturregi, Athletic taldekoa, eta Aintzane Encinas, Erreal-eko. Laguntza guztia egokia izan zen une horietan UEFA rankineko 21. postuan zegoen eta hurrengo Mundu Txapelketarako sailkapenean murgildutako konbinatu ahaltsu batekin neurtzeko. Harmailetan 1.800 pertsona ingururekin kontatuz, 7. minutuan Erika Vazquezek 1-0 emaitza markatu zuen

Nahikariren asistentzia bati esker eta aldageletatik irten bezain laster Nahikarik 2-0 emaitza lortu zuen, eskuz eskukoa definituz. Kanpotarrak partiduan sartu ziren 65 minutuko Bartonovaren tanto batekin. Chequia gogor aritu zen eta lokalek 3-0 emaitza lortu zuten Gimbertek huts egindako penalti baten eskutik. Norgehiagokarako hautatuak ondorengoak izan ziren:

Ane Bergara, Yulema Corres, Nekane Diez, Damaris B. Egurrola, Joana Flaviano, Vanesa Gimbert, Maite Oroz, Ainhoa Tirapu, Ainhoa Vicente y Erika Vazquez (Athletic); Marta Unzue (Barcelona); Leire Baños, Nahikari Garcia, Manuela Lareo, María Asun Quiñones, Sandra Ramajo, Itziar Gastarena eta Naiara Beristain (Erreal).



NAZIOARTEKO LAGUNARTEKO PARTIDUAREN AURRETIAZKO EKITALDIAK

Mahai-inguru bat mantolatu zen ostiralean Armeria Eskolan. Eta partiduen egun berean Fan Zone bat inauguratu zen Unzaga plazan. Arratsaldean, Kalejira bat ospatu zen Unzaga eta Ipurua artean. Norgehiagokaren ostean, ekitaldiak Genero Indarkeriaren aurkako Eguna bideratu ziren, Disko Festa batekin amaituz.

TALDE BAT PLAY OFF-EAN ETA BESTEA JAITSIERA SUSTAPENEAN, EKUATOREAN

*Kategoriako gure
ordezkariak erdi
mailakoak bezala portatu
dira, bereziki nabarmendu
gabe, ez gainetik eta
ez azpitik.*

David Novo

Bigarren B-ko 2. Taldean Ligako ekuatorera hel-tzean, Brontzeko Mailako euskal taldeen zeregina ezberdina izan da. Lehenengo 19 jardunaldiren ondoren, Bilbao Athletic taldeak lehenengo lau sailkatuen artean amaitu zuen; beraz, 2. A mailarako igoera sustapena lehiatzeko eskubidearekin. Eta beste bi talde euskaldunekin, B Errealak eta Gernika, zelatan, segidako sailkapenean.

Taulako eremu lasaian talde euskaldunen beste hirukote bat

aurkitzen dugu (Barakaldo, Amorebieta eta Leioa) aurten aldaketa geografiko garrantzitsuak jasan dituen II multzoan, iparrekoaren


goitizena berreskuratuz Euskadiko bederatziko eskuairekin batera aurkari asturiarrak, kantabriarrak, errioxarrak, nafarrak eta bi bur-gostar barne hartzean.

Lehenengo txanda jaitsiera postuetan euskal talderik gabe amaitu zen baina Real Union sustapen eremutik hurbil izanik (partidu bikoitzeko kanporaketa bat lehiatu beharko luke 3. mailara erortzea eragozteko, Vitoria eta Arenas posizio konprometituetan geratuz.



Bilbao Athletic-Real Unión

 **Sport·designer**


 grupo-campus

**OFERTA LANZAMIENTO
19,50 €**

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en euskera y castellano.

Más información: www.sport-designer.com



BEASAIN NEGUKO TXAPELDUNA LIGA OSO PAREKATUAN

Lurralde bakoitzeko talde batek Erregionalerako hiru jaitsiera plaza hartu ditu oraingoz: Aurrera de Vitoria, Getxo eta Anaitasuna.

David Novo

B easain Hirugarren Mailako IV. Multzoko neguko txapelduna aldarrikatu zen, sei lider ezberdinekin kontatu duen lehenengo txanda

baten ondoren: Alavés B, Amurrio, Sestao, Cultural eta Santurtzi taldeek halaber bistak gozatu zituzten marinelek okupatu zuten lehenengo postutik, adibidez, sei astetan zehar. Cultural de Durango, Real Sociedad C eta Portugalete taldeek 2017a play off-eko postuetan amaitu zuten, bi talde bizkaitarrak izanik joan den ikastaroa errepikatzen dutenak une hauetan. Azpitik, Lurralde bakoitzeko talde bat jaitsiko litzateke denboraldia berdin amaitzean: Aurrera de Vitoria, Getxo eta Anaitasuna.



BETI ARRASTEAK ZAITZEN

N ahiz eta lehenengo aldiz azkeneko kanpainetan -zeinetan kategoria galduko zuten Sestao, Zamudio eta Portugalete taldeek- ez dago talde euskaldunik Bigarren B mailako azken lau sailkatuen artean, horietako batzuen sailkapeneko egoerak Hirugarren mailako gure ordezkariak erne egotera eta erritmoa ez jaistera behartzen ditu, zeren, adibidez, Real Unión, Vitoria eta Arenas, 'eremu gorriarekiko' plaza gertuenetan zeuden Brontzeko Mailako lehenengo txandaren amaieran.



Autocares

Bº Arregui - Polígono Cóndor - Edificio C - 48340 AMOREBIETA

Teléfono.: (+34) 946308250 - Fax: (+34) 946308510

gocotour@gocotour.com - www.gocotour.com



- **Viajes NACIONALES / INTERNACIONALES**
- **Todo tipo de SERVICIO en AUTOBÚS**
- **Transporte: ESCOLAR, BODAS, CELEBRACIONES, CONGRESOS, , Etc.**
- **Vehículos de: 7, 18, 22, 27, 35, 38, 40, 55, 59, 71 Plazas**
- **Vehículos ADAPTADOS para P.M.R. (Personas Movilidad Reducida)**
- **Servicio Privado TAXI: Bodas, Lujo y 24 horas**

ATHLETIC CLUB ETA ERREALA BIDE ONETIK DOAZ LEHEN MAILAN

Lehoiak taularen goialdean ezartzen dira gogokoenei gerra emateko eta donostiarrak pixkanaka goraka doaz Kopan sartzeko borrokan.

Txemi García

Elite Nazionaleko gure taldeak urratsak ematen ari dira euren helburuak lortzeko. Athletic Kluba talde terrenaletako lehena da, soilik gainditua izanik Ligako transatlantikoengatik, Barcelona eta Atletico de Madrid. Joseba Agirrerren jokalariek hirugarren plaza lortzeko gainerako aurkariekin tarte bat egitea lortu zuten. Aldiz Erreala gaizki hasi zen segidako



zazpi porrotekin. Azaroaren 21ean zuzendaritza txuriurdinak erabaki zuen aulkian Juanjo Arregi ordezte eta bere tokian Gonzalo Arconada ezarri zen.

TITULUA ETA SALBAZIOA NAHASIAN 2. MAILAKO EUSKALDUNEN ARTEAN

Bederatzi talde euskaldun lehiatu dira emakumeen futbolaren Zilarrezko kategorian. Taularen goialdean Athletic B eta Eibar postu gorenagatik borrokatzen dira denboraldi honetan. Zuri-gorriek joan den kanpainako titulua berretsi nahi dute, armeroak iazko urte irregularraren ostean ustekabe atsegina diren bitartean. Okerrago doazkie gauzak Oiartzun eta San Ignacio taldeei 16/17etan igoeira play off txapelketa jokatu ostean. Biak ahalik eta posturik gorena lortzen saiatuko dira.

Gainerakoak Bigarren Mailan jarraitzeko borrokatzen ari dira. Añorga, Pauldarrak, Gasteizko Neskak eta Aurrera Vitoria dirudienez jaitsiera postuak arrastotan mantentzen ari dira. Posizio gorriak, Zarautz igo berria tartean, emaitza positiboak lortzeko zailtasun handiak izanik.

IGOERAREN ALDEKO BORROKA ZIRRARAGARRIA SUMATZEN DA EUSKAL LIGAN

Arratia, Bizkerre eta Tolosa abantailarekin abiatu dira, aurreko denboraldiko txapelketako Zarautz garailearen oinordekoak izateko.

Txemi García



Euskal Liga zirrargarria aurreikusten da Bigarren Mailan lehiatuko den gure taldetako hurrengo zein den ikusteko. Dirudienez, txapelduna ternatik aterako da: Arratia, Bizkerre eta Tolosa. Atzetik Leioako gerra emateko prest dagoela eman izan arren. Bai Igorrekoak, getxotarrak, eta bai Usabaleko taldea irmoak eta erregularrak izaten ari dira bere errendimenduan. Lehenengo lauren ondoren, urte amaieran posizio ona lortzeko borroka abian jarri da. Iraunkortasunaren borrokari dago-kionez, oraindik lan asko dago egiteko. Añorga B eta Lakua taularen amaieran daude.

EUSKADI 18BEKO ETA 16BEKO ESTATUKO TXAPELKETAREN 1. FASEAN TOPATU DIRA

PASE KONPLEXUA

Konbinatu biak txapelketa ongi amaitzeko lehiatuko dira.

Euskadik selekzioen estatal autonomikoaren lehenengo fasea lehiatu zuen joan den abenduan Llíria (Valentzia). Emaitzak ez ziren onak izan.

Txemi García

Euskadi 18beko eta 16beko taldeen partaidetza abenduan abiarazi zen selekzioen estatal autonomikoan. Nagusientzat XIII. edizioa da eta txikientzat berriz, IX. a. Partiduak Llíria (Valentzia) lehiatu ziren. Gureak A taldean geratu ziren anfitrioiekin, horien aurka borrokatu gabe, eta Galizia eta Aragoiko selekzioekin batera.

Lehenengo fase honetan bien emaitzak bateragarri egin ziren bigarren faseari begira eta aurrekusi baino okerragoak izan ziren. Idurre Frias entrenatzailearen 16beko taldea minimoarengatik porrot batekin hasi zen galiziarrekin neurtzean (0-1) eta bigarren norgehiagokan berdinduta amaitu zuen arragoitarrekin (2-2). Pixka bat hobeto atera zitzaizkien gauzak Jon Kepa Gonzalezen mendeko 18beko-ko jokalariei. Debutak zartada gogorra eman zien, Galizia garaile aldarrikatzean (1-4). Baina Gonzalezen jokalaria hautatuek kasta eta kalitatea atera zuten Aragoi taldearen aurka goleatzean (0-6). Talde biak jadanik irrikaz daude bigarren faseko euren hurrengo konfrontaziorako. Dirudenez, Kantabria eta Gaztela Mantxako lur kantauriarretan lehiatuko dira. Zita otsailaren 9tik 11ra garatuko da.



Euskadi 16beko



Euskadi 18beko

MARIA ANTONIA GALANI HIL OSTEKO OMENALDIA

Urte bukaeran Arabako futbolak, Maria Antonia Galan-i hil osteko omenaldi eta errekonozimendua bizi izan zuen. Arabako eta Euskadiko Federazioetako zuzendaritza taldeko kidea izandakoa, eta emakumeen artean kirol honen sustatzaileetariko bat, pasadan martxoan hil zen. Sansomendiko kiroldegiak eta alboko Lakua futbol zelaian, futbol eta areto futboleko partiduak jolastu ziren eta omenaldi ekitaldi bat egin zen Galan-en familiaren presentziarekin.

EUSKAL TALDEAK LIGA ESTATALETAKO SAILKAPEN TAULETAN NAGUSI

Aurten ere, euskal taldeak emaitza onak eskaintzen ari dira liga autonomikoetan. Aipamen berezia merezi dute Errealak eta Athletic taldeak.

protagonismo nabarmenarekin. Kategoria jubencil gorenean Athletic Kluba Eguberrietako etenaldira heldu zen Errealaren aurretik. Bi nagusien jarraian Alaves dator, bere harrobiko taldeekin jarduerari bultzada bat emanez.

Danok Bat txapelketaren lehenengo tarte honetan zer esana ematen ari den beste taldeetako bat da. Klub bilbotarrak erakutsi du aurten ere futbolariekin egoki jarduten dela, eta euskal hiriburuetako talde nagusiak hurbiletik jarraitzen dituela. Halaber Eibar, Lehen Mailan ordezkatutako beste kluba izanik, taldean murgiltzeko borrokatzen ari da.

Erdi-gunean Getxo eta Antiguoko trebetasunez lehiatzen ari dira ospe handiko aurkarien aurrean. Arenas eta Hernani, bestalde, elite jubencilan mantentzea lortzeko borrokatzen ari dira. Ez daude zintzilik eta oraindik asko dago egiteko.

Raúl A. Collantes

Ohorezko Maila jubencilak bere sailkapen taulan aurkezten du 18beko eta 16beko kategorietako txapelketak euskal taldeentzat izaten ari direnaren adibide bat. Gure taldeen jarduera bikaina Lezama eta Zubieta taldeen ohiko



Athletic-Real Sociedad

LIGA NAZIONALA, FILIALEK SAILKAPENEN LEHEN POSTUAK HARTU DITUZTE

Taulako burua filial ezberdinekin osatuta dago, hau da, denboraldiko lehenengo tartean nabarmendu direnekin. Real Sociedad B lehenengo txandan Neguko Txapeladuna izatera heldu zen halaber nabarmentzea lortu duen Athletic Club B taldearen aurretik. Alavés B eta Danok Bat B kategoria oso lehiatu bateko beste bi talde nagusiak izan dira.

ANTIGUOKO C TALDEA EUSKAL LIGA JUBENCIL BATEKO LIDERRA BERDINTASUN HANDIAREKIN

Ezberdintasun gutxi ELJ-ean lehiatzen ari diren taldeen artean. Antiguoko C lehen postuan heldu zen Eguberrietako etenaldira, baina esan behar da donostiarrek harrapatu ahal dioten talde kopuru handi bat dutela alboan. Vasconia, Sanse edo Balmaseda jarraitzaileen pelotoiko buruak dira. Eta bederatzita talde arte daude hamar puntu baino gutxiagoko distantziara.

EUSKAL LIGA KADETEA, DANOK BAT BI NAGUSIEN ARTEAN SARTU DA

Danok Bat taldea animatzaileetako bat izan da Kadete Euskal Ligako lehen txandan. Bilboko taldeak aurre egin dio Errealari eta Athletic taldeari eta denboraldiko lehenengo tartean Neguko Txapeladun bezala amaitzeko zorian ibili zen. Azkenean, donostiarrek izan ziren taularen gorenean ezarri zirenak. Alavés eta Antiguoko taldeen zenbaki oparoak.

EUSKADI 18BEKO ETA 16BEKO, TALDEKO LEHENAK ESTATUKO TXAPELKETAN

BIGARREN FASEA

Asturias eta Melilla, aurkariak bigarren faseari begira otsailen.

Bi euskal konbinatuen jarduera egokia izan zen joan den abenduan Lizasoainen ospatutako Estatuko Txapelketaren lehenengo fasean.

Raúl A. Collantes

Jubenil eta kadete kategorietako euskal taldeak Selekzioen Estatuko Txapelketako lehen faseko garaile aldarrikatu ziren. Hiru Kolorekoaren taldeak Murtziakoekin eta Nafarroa anfitrioiarekin neurtu ziren abenduaren 27, 28 eta 29an Lizasoainen. 18beko taldea garaile aldarrikatu zen bere bi partiduetan Murtzia eta Nafarroako selekzioen aurka. 16beko taldeak murtziarren aurka irabazi zuen baina anfitrioiaren aurka galdu egin zuen. Edozein kasutan, bi taldeen artean hiru kolorekoak bederatzi puntu eskuratu zituen, multzoko lehen postuan amaituz. Oskar Tabuenkaren talde jubenila 1-0 garaipenarekin estreinatu zen murtziarren aurka eta nafarren aurka erraz gailendu zen bere bigarren partiduan, gureen aldeko 0-3 emaitzarekin amaituz. Mikel Bengoaren kadeteek, bestalde, Mutzia selekzioarekiko gailendu ziren 3-1 erremon-tatzea barne. Nafarroa selekzioaren aurkako talkan penaltiaren azken konpasetan erori ziren. Azkenean, porrota minimoagatik. Emaiza hauekin, eta bigarren fasea begira, jubenilak euren mendean daude eta kadeteek euren bi partidua irabazi behar dituzte, agian beste emaitzaren bat bilatu behar izanik.



Euskadi 16beko



Euskadi 18beko

KIROL INSTALAZIOEN BILATZAILE BERRIA

Euskadiko Futbol Federakundeak zerbitzu berri bat eskeintzen Edu berre web orrialdean: Kirol instalazioen bilatzaile arduratu bat, Eusko Jaurlaritzak eginiko zentsu bat oinarri bezala erabiliz. Beraz, hiru lurralde historikoetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) edozein udalerriko kirol instalazioei buruzko kontsulta egin daiteke, bilaketan, ekipamendu edo kirol modalitate mota konkretatuz.

IBARRA, ZIERBENA ETA SANTURTZIREN JARDUERA BIKAINA BIGARREN B-KO LEHIAKETAREN LEHENENGO ATALEAN

Zierbena eta Ibarra lehenengo plazak lortzeko lehian, Santurtzi aurten lehiaketa larritasun gutxiagorekin gozatzen ari den bitartean.

C. Zárate



Ibarra

Bigarren B-ko lau talde euskaldunek (Ibarra, Zierbena, Santurtzi eta Elorrioko) txapelketaren lehenengo atala osatu dute zorte ezberdinarekin. Alde batetik, Ibarra eta Zierbena sailkapeneko lehenengo postuengatik lehian daude, Santur-

tzik denboraldi honetan bere aurpegia erabat aldatu duen bitartean, plantillaren eta teknikariaren berrikuntza sakonarekin. Santurtziarrak sailkapeneko erdi-gunean daude 23 punturekin eta gaitasun goleatzaile eraginkorra erakutsi dute, horrela aurreko denboraldiko

larritasunak jasan behar izan gabe. Bestalde, Elorrioko taldeari kostatzen ari zaio txapelketari neurria hartzea eta soilik bi garaipen lortu ditu.

Urre beltzei kostatu egin zaie lehenengo garaipenak lortzea, bere jokoa eta esfortzua beti bikaina izan arren, baina orain gogo eta berme gehiagorekin ari dira txapelketaren gainerakoa lehiatzen. Hala ere, sailkapenaren behealdean nagusitzen den berdintasunak dena ematera behartuko ditu putzutik aterako badira. Neurri gabeko borroka bat izango da erretzea saihestea lortzeko asmoz.

Zentzu honetan, ligako txapelketa oso berdindua da, zeinetan goiko postuak oso lehiatuak izango diren.

Lehenengo sailkatuen arteko distantzia minimoa da, beraz, txapelketaren amaieran aldaketa ugari gerta daitezke.

Beraz, joan den denboraldian bezala, Zierbena hurrengo Errege Kopan lehiatzeko plaza bat bermatzen ahaleginduko da.

Bestalde, Ibarra eta Santurtzi ahalik eta puntu gehien lortzen saiatuko dira.

BIGARREN FEMENINOA

Bilbo lehenengo postuak lortzeko lehian mantentzen da, segidako berderatzi jardunaldiko bolada bikaina garatu ondoren. Stilo taldeak, aldiz, noranzkoa aldatu behar du bigarren txandean.

OHOREZKO JUBENILA

Eskoriatza eta Ibarra taldeen jarduera bikaina, Otxartabe eta Gora Bilbao erremontatzeko asmotan dabilzan bitartean.

ZALDITZO NAGUSI HIRUGARREN MAILAN ETA LABASTIDA EUSKAL LIGAN

Zalditzo taldeak liga txapelketako lehenengo atal ikusgarria sinatu du, soilik partidu bat galduz eta hamabi irabaztea lortuz. Horrek taldeko liderra izatea ahalbidetzen dio, bere jarraitzaileekiko puntuen koltxoi batekin. Bestalde, Euskal Ligan, Labastida nagusitu da lehenengo tarte honetan, zeinetan Sestao eta Gernikako igo berriek jarduera bikaina garatuko zuten, baita Gora Bilbao eta Elorrietako taldeek ere, Hirugarren Mailarako igoera plazan alde borrokatzen ari direnez.



ARETO FUTBOLEKO EUSKAL SELEKZIO JUBENIL, KADETE ETA FEMENINOA, KANPORATUAK

EUSKADI, AURRETIKO FASE JUBENILAREN EGOITZA

Ibarrako Belabietak, Gipuzkoan, urtarrilaren 10etik 14ra bitarteko txapelketa hartu zuen.

16beko, 19beko eta 21beko euskal konbinatuak ezin izan zuten gainditu selekzioen estatuko txapelketaren amaiera fasera sartzeko tartea.

Carlos Zárate

Ezinezkoa izan zen. Areto Futboleko Euskadiko hiru selekzio kanporatuak izan ziren estatuko txapelketako aurretiko fasean. Enzo di Paolak zuzendutako euskal konbinatu kadetea erori egin zen Kanariar taldearen aurka (8-2) lehenengo partiduan. Bigarrenean, Katalunia halaber gainera ezarri zen 10-0 erabakigarriarekin nagusituz. Hirugarren norgehiagokan, Euskadik porrot mingarria jasan zuen, oraingoan 14-2 emaitzarekin, Valentzia taldearekin neurtzean. Jose Manuel Korraletzek zuzendutako 91beko konbinatuak soilik puntu bat lortu ahal izan zuen lehiatutako lau norgehiagoketan. Euskadik porrotarekin debutatu zuen Valentzia taldearen aurka (8-1). Jarraian, bigarren partiduan, berdinketa ikusgarria lortu zuen Balear Islak taldearen aurrean (4-4). Hirugarren talkan galdu egin zuen Extremaduraren kontra (4-2) eta, amaitzeko, Katalunia taldea gailendu zitzaion (3-6). 21beko femeninoa Murtzia eta Madril selekzio ahaltzuekin neurtu zen. Aitor Arealoren selekzioak lehenengo norgehiagoka galdu egin zuen Madril aurrean (10-1) eta jarraian porrota jasan zuen Murtzia anfitrioiaren aurka, hura 3-0 emaitzarekin nagusitzean.



Jubenila



Kadetea



Emakumeak

CD SONDIKA ETA CD LOIU BERE 75. URTEURRENA OSPATZEN ETA KOSTKAS KE BERE 50. URTEURRENA

Bi klub bizkaitarrek fundatu zirenetik 75 urte ospatzen ari dira, klub gipuzkoarra bere 50. urteurrenara iritsi den bitartean.

Iker García



Ospakizunen urtea talde euskaldun ezberdinentzat. CD Sondika taldeak joan den irailean bere 75. urteurrena ospatu zuen ekitaldi ezberdinekin, horien artean, 62ko talde jubnilari eginiko omenaldia, talde femeninoari -Lehenengo Maila jokatzeko aitzindaria- eta Bizkaia Kopa irabazi zuen taldeari, 1972an, gainera bazkari herrikoia eta emanaldi ezberdinak ospatuz.

CD Loiu taldea ere zifra magiko horretara iritsi da eta Kostkas KE taldea historiako 50 urtetara heldu zen kadeteen torneo batekin, bertaratuak izanik Erreal, Athletic de Bilbao, Eibar, Alaves, Racing de Santander, Real Valladolid, Errioxa Selektzioa eta kluba bera. Halaber paella-jana eta Donostia Hiriko Torneoa ospatu ziren.

ALVARO SUSO, EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNEN GERENTE BERRIA

Alvaro Suso Lecanda, Fudurako CPT-ko kirolarien egoitzako zuzendari ohia Euskal Kirol Federazioen Batasuneko (UFDV/EKFB) gerente berria da, joan den ekainean kargua onartu zuenetik.

Kandidatu hautatuei el-karrizketak egin ostean, UFDV-EKFB-ko Zuzendaritza Batzordeak erabaki zuen Suso zela Elkarteko gerentearen kargua betetzeko profilarekin hobekien egokitzen zen pertsona, Fudurako Hobekuntza Zentrotik pasa ondoren, eta hautatua izan zen, joan den ekainaren 1etik aurrera gerente funtzioak betetzen hasteko.

EKFB-ko gerente berriak, 2003tik Elkarteko honetako arduraduna izandako Ruben Bueno ordeztu zuen karguan.

SANTUTXU CF GIZARTEAN BERE MENDEURRENEKO EKITALDIAK AURKEZTERA DATOR

Klub bizkaitarrak bere mendeurrenako oroitzapenezko ekitaldiak gizartearen aurkeztu zituen. Luis Mari Elustondo Euskadiko Federazioko presidentea etorri zen.

David Novo



Santutxu FC taldeak kirol eta kultura ekitaldi ezberdinak antolatu ditu, auzo bilbotar osoa parte hartzera gonbidatuz, eta horien artean nabarmentzekoak dira Maionan Athletic taldearen aurkako lagunarteko partido bat, beterrano gorritxoena eta lehoi ohien artekoa, harrobiko futbolaren inguruko mahai-inguru sendoak, hala nola Aste Santuko, ekaineko, abuztuko eta iraileko futbol oinarriaren torneo ezberdinak; baita Eguberrietako Fernando Grijalba Memorialaren Torneoa ere. Apirilaren 22an, mendeurrenaren egun nagusia izanik, meza bat emango da zuzendari, jokalaria, entrenatzaile eta bazkide eta abarren omenez.

El placer de desplazarse

VEHÍCULOS CON CONDUCTOR



Automóviles de alta gama



Idiomas
Servicio 24 horas

Tel.: 943 39 38 48
Donostia-San Sebastián
www.vallinagrupo.com

Atreverse es ver esta foto en
mitad de una guía y decirte:

**“QUIERO MÁS VUELTAS
EN MI VIDA”**

Las
**VUELTAS DAN
MUCHA VIDA**

EUROPA

ASIA

AMÉRICA

OCEANÍA

CRUCEROS

Hasta

15%
DESCUENTO

Mejor

PRECIO
garantizado

Hasta

10 meses
de financiación*

Consulta las condiciones de estas promociones en nuestras oficinas. *Financiación hasta en 10 meses, consulta condiciones de financiación sujeta a estudio y aprobación por parte de Santander Consumer Finance S.A.

ARABA-ÁLAVA | Vitoria-Gasteiz | Zaramaga, 1. C. Cial. Boulevard. [945 10 30 97] | BIZKAIA | Bilbao | Gran Vía D. Diego López de Haro, 75 (Metro: San Mamés Indautxu). [946 42 43 48] | Pza. San Francisco Javier, 1 (Metro: Indautxu). [946 40 40 28] • Pza Santiago, 3. [946 41 40 10] | Basauri | Pedro Bilbao, 2 (esq. Nagusia, 1). [946 41 45 08] | Deusto | Luis Power, 28. [946 43 80 03] | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31 bajo. [946 41 64 05] | LAS ARENAS-GETXO | Mayor, 4. [946 42 46 82] | GIPUZKOA | Donostia-San Sebastián | Urbiete, 47. [943 10 49 24] | Eibar | San Agustín, 5. [943 10 89 60] | Irún | Plaza J.R. Agirretxe, 3 (fuente Luis Mariano). [943 10 43 42] | Rentería | Av. Navarra, 63. [943 10 43 44] | Urretxu | Labeaga, 41. [943 10 98 78]